



MOVISTAR GAILUAK ALOKATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

1.- Xedea

Ondoren deskribatzen diren Baldintza Berezi hauen (aurrerantzean, "Baldintza Bezeriak") helburua da TELEFÓNICA MÓVILES ESPAÑA, S.A.U.-k (aurrerantzean, "Movistar") (IFK zk.: A-78923125; helbidea: Ronda de la Comunicación s/n, Distrito Telefónica, edificio Sur 3, 28050, Madril; Madrileko Merkataritza Erregistroan sartuta dago: ST-1, 8958 liburukia, 7804 orokorra, Sozietateen Liburuko 3. atala, 92 folioa, 85226-1 zenbakidun orria, 1. inskripzioa) erosteko aukera duten Gailuen alokairua (aurrerantzean, "Zerbitzua") arautzea, hori guztia aurrerago adierazten diren baldintzen arabera.

Baldintza hauek zalantzarik gabe onartzea ezinbestekoa da zerbitzua emateko. Bezeroak adierazten du, zentzu horretan, Baldintza berezi hauek irakurri, ulertu eta onartu dituela, kontratazioa egin aurretik, betiere, bere esku jarri direnak hemen: www.movistar.es/contratos.

1.2. Beste baldintza batzuekiko lotura

Erosteko aukera duten Movistar Gailuen Alokairu-baldintza Orokorrek, www.movistar.es/contratos helbidean argitaratuta daudenak, osatzen dituzte Baldintza Berezi hauek, baldintza horietan aurreikusten ez den guztian. Kontraesanik egonez gero, Baldintza Berezi hauen edukia lehenetsiko da aurrekoen gainetik.

2.- Aplikazio eremua

Baldintza berezi hauek miMovistar edo Movistar Fusión zerbitzuak kontratatuta dituzten Bezeroei aplikatuko zaizkie, honela:

Premium gama: miMovistar Zerbitzua (Movistar Max izan ezik gune arautuan*) TV Ficción con Netflix eta Todo el Fútbol paketeak elkarrekin kontratatzen duten bezeroei aplikatzen zaie, bai eta Fusión Total, Fusión Total Plus, Fusión Pro 2 eta Fusión Pro 4 zerbitzuen bezeroei ere.

Avanzada gama: miMovistar Zerbitzua (Movistar Max izan ezik gune arautuan*) TV LaLiga, Champions eta Europa League, Ficción con Netflix edo Todo el Fútbol paketeak elkarrekin kontratatzen duten bezeroei aplikatzen zaie, bai eta Fusión Selección, Fusión Selección Plus eta Fusión Pro zerbitzuen bezeroei ere.



Base gama: miMovistar Zerbitzua (Movistar Max izan ezik gune arautuan*)
Movistar Plus+ Inicia edo Movistar Plus+ Esencial paketeak elkarrekin kontratatzen duten bezeroei aplikatzen zaie, bai eta Fusión Inicia Infinito, Fusión Inicia eta Fusión 0.

(*) Gune arautua: CNMCK, erregulazio-mailan, etxerainoko Zuntz optikoko sareen operadoreen artean benetako lehia dagoela identifikatu duen Espainiako lurraldeko udalerriren baten barruan ez dauden etxebizitzak, horrek Gune Lehiakor gisa adierazten dituenean, hemen eskuragarri: www.movistar.es/zc

2P, 3P, 4T, 4Z, 5U, 5Z, 6S, 6X, 6M, 6T, 6P, 7Q, 8Q, 8S, 8P, 8U, 8V eta 8W mailak erabilgarri daude Premium gama eta Avanzada gama-n sartutako modalitateetako kontratazioetarako 2022/08/11era bitartean. 2P, 3P eta 6X mailak erabilgarri daude Base gama-n sartutako modalitateetako kontratazioetarako 2022/08/11era bitartean. Oro har, maila horiek ez daude eskuragarri zuntz optikoko produktuekin araututako eremuan kontratatzeko.

3.- Deskribapena eta baldintzak

3.1. Maila gehigarrien eskaintza

Bezeroak Baldintza Berezi hauetako 2. klausulan adierazitako baldintzak betetzen baditu, aplikagarri zaizkion Movistar Gailuen Alokairurako Baldintza orokor eta/edo partikularretako 1. eranskinean adierazitakoez gain, beste maila hauek ere aukeratu ahal izango ditu:

miMovistar/Fusión gabeko kuota		Premium gama	Avanzada gama	Base gama
MAILA 2P	5€/hil.	0 €/hil.	0€/hil.	0€/hil.
MAILA 3P	8€/hil.	0 €/hil.	0€/hil.	0€/hil.
MAILA 4T	11€/hil.	0 €/hil.	0€/hil.	8€/hil.
MAILA 4Z	13€/hil.	0 €/hil.	8€/hil.	10€/hil.
MAILA 5U	15€/hil.	0€/hil.	8€/hil.	12€/hil.
MAILA 5Z	20€/hil.	10€/hil.	10€/hil.	17€/hil.
MAILA 6S	23€/hil.	12€/hil.	12€/hil.	20€/hil.
MAILA 6X	25€/hil.	5€/hil.	5€/hil.	16€/hil.
MAILA 6M	25€/hil.	10€/hil.	10€/hil.	22€/hil.
MAILA 6T	25€/hil.	12€/hil.	12€/hil.	22€/hil.



MAILA 6P	27€/hil.	13€/hil.	13€/hil.	24€/hil.
MAILA 7Q	33€/hil.	20€/hil.	20€/hil.	30€/hil.
MAILA 8Q	36€/hil.	20€/hil.	20€/hil.	33€/hil.
MAILA 8S	36€/hil.	22€/hil.	22€/hil.	33€/hil.
MAILA 8P	37€/hil.	24€/hil.	24€/hil.	34€/hil.
MAILA 8U	37€/hil.	34€/hil.	34€/hil.	34€/hil.
MAILA 8V	40€/hil.	27€/hil.	27€/hil.	37€/hil.
MAILA 8W	40€/hil.	37€/hil.	37€/hil.	37€/hil.

Penintsulan eta Balearretan %21eko BEZa aplikatzen da, Ceutan %10eko IPSIa, Melillan %8ko IPSIa eta Kanarietan %7ko IGICa.

miMovistar edo Fusión-en baja aurreratua kasuan, Zerbitzuaren kuota aurreko taulan miMovistar/Fusión-ik gabeko Kuota gisa adierazitakoa izango da.

3.2. Gailu-packaren Baldintza Partikularrak

Aurreko taulan adierazitako maila jakin batzuetan, bezeroak "Gailu-sorta" bat aukeratzeko eskubidea izango du, eta, hala, bi Gailu nagusi alokatuko ditu baten prezioan. Kasu horietan, Baldintza Partikular hauek aplikatuko dira:

Eskaintzan jasotako bi gailu horiek Erostea aukera duten Movistar Gailuen Baldintza Orokorren (aurrerantzean, Baldintza Orokorrak) aplikazio-eremuaren mende egongo dira. Baldintza horiek www.movistar.es/contratos helbidean argitaratuta daude, eta bi gailuetara hedatuko dira Baldintza Orokor horietan jasotako aurreikuspen guztiak, bi aldeentzat baldintza horietan aurreikusitako eskubideak eta betebeharrak barne. Alde horretatik, Baldintza Orokor horiek Baldintza Berezi hauek osatzen dituzte, bertan aurreikusten ez den guztian.

Pack-eko Gailuen xehetasun zehatzak (adibidez: marka, modeloa, kolorea, gaitasuna, IMEIa edo Pack-aren identifikazio- edo serie-zenbakia, etab.) Bezeroari entregatzean emango zaion dokumentu espezifikoan jasoko dira.

Bi gailuengatik alokairuaren prezioa bat etorriko da hautatutako mailarekin eta Bezeroak kontratatuta duen miMovistar edo Fusión modalitatearekin, Baldintza Berezi hauetako 2. eta 3. idatz-zatietan adierazitakoaren arabera. Prezioa hilero sortuko da, eta Telefónica de España, S.A.U.-k fakturatuko du zerbitzu horiei dagokien fakturan.

Kontratuak irauten duen bitartean, bezeroak mantentze-lan egokiak egin beharko ditu bi gailuetan, eta horrek barnean hartuko ditu kontratuak irauten duen bitartean



ongi funtzionatzen duela ziurtatzeko beharrezkoak diren eragiketa guztiak. Horietako bat konpontzeko eskatzen bada, Bezeroak Pack-ean dauden bi gailuak entregatu beharko ditu.

Bi gailuen alokairu-zerbitzuak Baldintza Partikular hauek sinatzen diren unean hartuko du indarra, eta egun horretatik aurrera 36 hilabetez egongo da indarrean.

Gailu-sortak unitate bakar gisa funtzionatzen du. Ildo horretatik, Bezeroak erabakitzen badu alokairu-zerbitzuan borondatezko baja aurreratua ematea, bi gailuetan egin beharko du, eta ezin izango da horietako bakar batean baja eman. Hala bada, Bezeroak bi gailuak itzuli beharko ditu. Kasu horretan, Movistar Gailuen Alokairu-kontratuko eranskinean aurreikusitako Terminal Eguneratuaren Kostu (CTA) ponderatuaren zenbatekoa aplikatuko zaio.

Bezeroak ez baditu bi Gailuak itzultzen edo ez baditu itzultzen Erostea aukera duten Movistar Gailuen Alokairu-zerbitzuaren Baldintza Orokorren 6.5 eta 6.6 ataletan ezarritako baldintzen arabera, Terminal Eguneratuaren Kostuaren (CTA) ondoriozko zenbatekoa aplikatuko zaio.

Kasu horietan, CTA Gailu-sortaren hasierako kostua da, alokairuaren gainerako egunekin biderkatuta, eta alokairuaren iraupenaren denbora osoarekin zatituta (egunetan kalkulatuta): $CTA = (\text{Gailu-packaren KOSTUA} / 1095) \times \text{Alokairuaren gainerako egunak}$.

Bezeroak bi gailuak erosteko aukera ere izango du edozein unetan. Kasu horretan, biak erosi egin beharko ditu, ekintza bakar batean eta Baldintza Orokorretan adierazitako modu eta baldintza beretan. Ezin da gailu horietako bakar bat erosi.

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren testu bateginean (azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako ED) xedatutakoa kontuan hartuta, bezeroak ez du atzera egiteko eskubiderik izango aurrez aurreko establezimenduetan kontratatuz gero.

4.- Prezioa eta Fakturazioa

Zerbitzuaren prezioa bat etorriko da gailu mailarekin eta bezeroak kontratatzen duen miMovistar edo Fusión modalitatearekin, Baldintza Berezi hauetako 2. eta 3. klausuletan adierazitakoaren arabera.

5. Aldaketak

Bezeroak konpromisoa hartzen du kontratuko datuetan aldaketarik izanez gero Movistar-i jakinarazteko, batez ere fakturazio-helbideari eta ordainketak helbideratzeko banku-kontuari dagokienez.



Aldeen arteko prestazioen oreka berrezartzeko, Movistar-ek kontratuan ezarritako baldintzak aldatu ahal izango ditu, eta, bereziki, kontratuaren prezioa, arrazoi hauetako batengatik, Movistar-ek zerbitzuaren tarifak finkatu ondoren gertatutako egoeraren bat ematen bada:

- Movistar enpresaren sektoreko kostuak handitzea, estaldura, sarearen kalitatea edo emandako zerbitzuaren ezaugarriak hobetzeko.
- Zerbitzua emateko baldintzei eragiten dieten arau-aldaketak (zergak, tasak edo ebazpen administratibo edo judizialak barne).
- Kontsumorako prezioen indizearen (KPI) edo, horrelakorik ezean, prezio industrialen indizearen (IPRI) gehikuntza.

Movistar-ek edozein aldaketaren berri emango dio bezeroari aldaketa gauzatu baino hilabete BAT(1) lehenago gutxienez, eta zer arrazoiengatik egiten duen adieraziko dio. Bezeroak kontratua penalizaziorik gabe amaitzeko eskubidea izango du, bezeroak berak hartutako beste konpromiso batzuen kalterik gabe. Hilabeteko epean Movistar-ek jakinarazpenik jaso ez badu, Bezeroak aldaketak onartzen dituela ulertuko da.